

# Egin zaituz ukberri.net-eko partaide!

Behar zaitugu. Zure ideiak, partaidetza eta dirua behar ditugu. Argi, ezta? UKBERRI.NETen albisteak bezain argi. Euskara eta eskualdeko komunikazioaren aldeko proiektuarekin orain dela 4 urte hasi ginen, euskara txukun eta errezaz eta ikuspegi zabal eta askotarikoaz. Dagoeneko, UKBERRI.NET Uribe Kostako eta Erandioko Internet bidezko agerkari euskaldunak 4.668 pertsonengana eramaten ditu eskualdeko berriak. Hutsuneak hutsune, proiektua uribe kostar guztiei zabaltzeko moduan dagoelakoan gaude, eta gainera, pilatzen zaizkigun proiektu guztiak egingo baditugu behar-beharrezko izango ditugu partaidetza zabalera eta diru independente multzo dezente bat. Horra hor erronkak:

- **UKBERRI.NET** agerkari euskaldunaren berdiseinua, agenda indartzea, multimediara hurbiltzea, spam-a moztea eta behar den tresneria erostea, komunikabide profesional eta parte-hartzailea helburu.
- **MYSFACE.COM** bezalako tresna euskalduna abiatzea Uribe Kostako musika talde euskaldun eta elebidunentzako.
- **ESKUALDEKO AGERKARI DIGITAL SEKTORIALAK** sortzea euskara hutsuz, sektore bakoitzeko eragileekin elkarlanean. Lehentasunezkoak: emakumea, gazteria, euskara, kultura eta kirola.
- **KULTUR PRENTSA BULEGOA**ri ekitea, kultur ekitaldiak egiten dituzten eskualdeko eragileei zuzenduta, ekitaldien zabaltzean laguntzeko, komunikazio ikastaroak emateko eta komunikazio gida kaleratzeko. Dagoeneko Getxoko Udalak uko egin dio dirulaguntza proiektu honi.
- **ESKUALDEKO HERRI AGENTZIA** sortzea Uribe Kostako jendeak eta eragileek sortzen duten informazioa zabaltzeko.
- **AUZOLANEAN JARRAITU** Euskal Herriko Kontrainformatu taldean, Algortako jai batzordean, Sopela eta Larrabasterako txosna batzordean, Leioako Maribou Teilagorri eta Algortako Aldai Patronatuan.
- **ELKARLANA SUSTATU** Mundurat Sarean, Topagunea eta Ibaizabal Telebista proiektuetan barmenatuz eta "UK", Koska irratia, Etengabe, Plentzia Telebista eta "Harrabots"ekin harremanak estutuz.
- **URIBE KOSTAKO HITZA** posible egiteko urratsak ematea.

---

## BAZKIDETZA TXARTELA

(eman UKBERRI.NETeko txosnetan, erredakzioan edo e-postaz idazkaritza@ukberri.net helbidean)

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Herria eta kode postala: \_\_\_\_\_

Telefona: \_\_\_\_\_

Bazkidetza mota: langilea (urteko 25 euro) / ikaslea edo langabetua (urteko 12 euro) / kolektiboa (urteko 100 euro).

Ordainketa: eskuz / bankuz - epe batean / epe bitan.

Kontu Korrontea (20 digito): - - -

Kontu korrontean agertzen den kameta: \_\_\_\_\_

Mila esker eta hurrengo asanbladan ikusi arte!